

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ESKUERNAGAKO UDALA

#### 2019ko zergak kobratzea

Honako zerga errolda hauek onartu dira:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga.
- Zabor bilketaren tasa.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea irekitzen da, bi hilabetez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Ordainketa helbideratuta edo eskudirutan egin ahal izango da; eskudirutan eginez gero, udal honek Kutxabank erakundearen duen kontuan sartu behar da.

Borondatezko epea amaitu eta artean ez bada ordainketarik egin, zerga horren zordunak premiamendu bidean sartuko dira, dagozkien errekargu, berandutze interes eta kostuekin, Arabako Zergen Foru Arau orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezartzen duenaren arabera (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa).

Eskuernaga, 2019ko martxoaren 6a

*Alkatea*

**IÑAKI PÉREZ BERRUECO**